

Irakaslearen aztarna

Irakasleak gutxietsita daude gaur egun: «Zertarako irakatsi, den-dena Interneten baldin badago?». Informazio hutsa jakituriarekin nahasten dute ahots neoliberalek, eta autodidakta izatea goraipatzen dute... Edo 'gailu-didakta' deitu beharko genioke horri? Badirudi irakasleek *coach* edo erraztaile baino ez dutela izan behar; eta ikasleek, bezero edo enpresa digital erraldoientzako datu emaille. Baina zer izango litzateke irakaskuntza norbaitek gugan ikasteko gogoia, edukiekiko grina eta jakituriarekiko miresmena piztuko ez balitu? Nola ahaztu irakasle batzuek gugan utzitako aztarna?

Joxe Azurmendik markatu gintuen. Ikasleok bagenekien haren klaseetan zerbait garrantzitsua gertatuko zela, esandako zerbaitek ukituko gintuela, gelan egoteak merezi zuela. Testu filosofikoak zuzenean irakurtzen trebatu ginen berarekin, komentaristen komentarietengana jo gabe. Ur filosofikoetan zuzenean bainatzen ginen, freskotasunez, galderaz eta iruzkinez betetako itsasoan. Testuak bizirik zeuden haren ahoan, irakurketa pausatua arnasten genuen bitartean paragrafoz paragrafo. Esaldi bakar batekin luze ari gintezkeen...

Egia esan, izugarri disfrutatu genituen haren eskolak, eta izugarri maite genuen gure irakaslea. Modu berean, maitatuak sentitzen ginen. Ikasleoi testua ozen irakurtzeko eskatzen zigun, eta, irakurketa amaitu orduko, «eskerrik asko» esaten zion ikasle-irakurleari, irribarre samur eta goxoz. Beti hartzen zituen aintzat gure parte hartzeak, beti eskertzen zizkigun. Garai hartako ikasle gazteoi, ordea, harrigarria egiten zitzaigun: maisua guri apal-apal eskerrak ematen! Guretzat autoritarismorik gabeko autoritatea baitzen. Ikasle, irakasle eta testuen arteko giro oso berezi zein atsegina sortzen zuen.

Behin, klase amaieran, hurrengo ikasturtean agian ez zela gurekin egongo aitortu zigun: medikuek gaixotasun larri baten berri eman

zioten goizean bertan. «Zer esan ahal dizuet? Edozein gauza gertatuta ere, zoragarria dela bizitza honetatik igaro izana, oso eskertua nagoe-la». Gu ere goraipatu gintuen eta erabat hunkituta geratu ginen, bera besarkatzeko gogoz. Animatu egin nahi izan genuen, baina berak gu animatu gintuen azkenean!

Aurreko ikasturtean, denboran atzerago eginez, klaseko afarira gonbidatu, eta Donostiako alde zaharreko jatetxe batean batu ginen. Amaitutakoan gurekin pote bat har zezan nahi izan genuen, parrandatxo bat egiteko asmoz, baina ez zen etorri. Hala ere, «agian liburu artean denbora gehiegi eman dut eta parranda gehiago egin behar nituen», aipatu zigun agurtzerakoan. Nork ez du, une batez, beste bizimodu bat bizi behar lukeelako susmoa eduki? Hain zalantzati, hain maitagarri eta gizatiar agertzen zen ikasle gazteen aurrean! Hala ere, momentuko zalantzak zalantza, bazirudien egun hartako parrandara animatu nahi izan gintuela esandakoarekin...

Haren heriotzaren berri izan genuenean, klasekide ohi baten mezua jaso nuen: zelako pena Joxe hil izana, eta zelako zortea izan dugun haren ikasleak izan garenok. Aspaldi ez neukan lagun horren berririk; gau horretan deitu eta, solasaldi telefonikoan, Joxe gogoratzer eta mirestera bueltatu ginen. Filosofia Fakultatera ere bai, denboran hogeita hamar urte atzera eginez eta klaseetako sentsazio eder berberak partekatuz eta gaurkotuz. Bazirudien Joxeren ahotsa berriro entzuten ari ginela, denbora igaro ez balitz bezala; testuak berriro elkarrekin irakurtzen ari ginela; berarekin batera bihotz pentsalariak ginela. Ez al du ematen, batzuetan, bizitzaren momentu guztiak batera gertatzen direla? Galderen zaporea, jakintsuagoak izateko desira zintzoa eta apala utzi diguzu, Joxe. Zuk guri esaten zenigun, baina alderantziz behar du izan: eskerrik asko, bihotzez.